

Zientzia eta Teknologia Espaziala Unibertsitate Masterra 2024-25

HELBURUAK

Zientzia eta teknologia espaziala giza jakintzaren abangoardian dagoen arloetako bat da, eta gaur egungo iturri garrantzitsuenetako bat herrialde aurreratuenetako garapen ekonomiko, industrial, teknologiko eta zientifikorako. Zientzia eta Teknologia Espaziala Unibertsitate Masterrak profesional kualifikatuak trebatzen ditu (teknologoak eta zientzialariak), Zientzia eta Teknologia Espazialaren arlo guztietan. Trebakuntza horrek alderdi askotarikoak barne hartzen ditu: hala nola espazio sateliteak, behatoki astronomikoak, lur segmentua eta espaziotik lortutako emaitza zientifikoen analisia eta ustiapena. Gainera, programan, sektoreko enpresa ugari eta Europako Espazio Agentziak parte hartzen dute, eta irakaskuntza laborategiak eta praktketarako baliabideak erabiltzen dira; besteak beste, behatoki astronomiko batean eginiko praktikak.

IKASKETA PLANA

Kreditu banaketa eta ikastorduak guztira

Urtea	Nahitaezko irakasgaiak	Hautazko irakasgaiak	Master Amaierako Lana	Guztira
1	24	21	15	60
Guztira	24	21	15	60

Nahitaezko irakasgaiak irailetik abendura ematen dira eta hautazkoak urtarriletik maiatzera. Nahitaezko irakaskaien ohiko deialdia urtarrilean da eta hautazkoena maiatzean. Master Amaierako Lana urtarrilaren amaieran esleitzen da, eta defentsak uztailean eta irailean dira. Bi ibilbide iradokitzen dira hautazko irakasgaiak aukeratzeko: zientifikoa (Z) eta teknologikoa (T). Esanak esan, bi ibilbideak konbinatuz hauta daitezke irakasgaiak. Masterreko irakaskai guztiak gaztelaniaz eskaintzen dira, eta Master Amaierako Lana gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez aurkez daitezke.

LEHEN MAILA

Urteko Irakasgaia							
Kodea	Irakasgaia	Kredituak	Mota	Kodea	Irakasgaia	Kredituak	Mota
502012	Master Amaierako Lana	15	M				
Lehenengo Lauhilekoa				Bigarren Lauhilekoa			
501990	Fisika espaziala (EFC)	3	O	501998	Egitura mekaniko espazialak (T)	3	P
501991	Instrumentazio optikoaren oinarriak (EFC)	3	O	501999	Propultsio espaziala (T)	3	P
501992	Orbita-mugimendua: Astrodinamika	3	O	502000	Espaziorako materialak II: Aplikazioak (T,Z)	3	P
501993	Espazio-ontziak I	3	O	502001	Entsegu ez suntsitzailak: material espazialak (T,Z)	3	P
501994	Espaziorako materialak I: Oinarriak (EFC)	3	O	502002	Proiektuen kudeaketa eta zentro espazialen antolaketa (T)	3	P
501995	Detektigailuak eta sentsoreak	3	O	502003	Antenak eta irrati-teleskopioak: Komunikazioak (T)	3	P
501996	Datu espazialen prozesatzea	3	O	502004	Sistema optikoen eta optika egokigarrien diseinua (T,Z)	3	P
501997	Espazio-ontziak II	3	O	502005	Interferometria espaziala (T,Z) (EFC)	3	P
				502006	Astronomia eta Astrofisika (T,Z) (EFC)	3	P
				502007	Eguzki-sistemaren fisika (Z) (EFC)	3	P
				502008	Atmosfera planetarioak (Z)	3	P
				502009	Lurreko atmosferaren fisika (Z)	3	P
				502011	Antenak eta Teleskopioak: Kontrola eta segimendua (T,Z)	3	P